

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua aurrera eramateko beste enpresa ezberdinen laguntza ezinbestekoa izango da.

Produktua sortzeko funtsezko produktuen hornitzaileak beharko ditugu. Aterkiaren lona eta aterkia berez hornitzaileek sortutakoa izango da. Hornitzaileekin harremanak estuak izango dira, hau da, hornitzaileak egindako produktuak garaiz iristeaz arduratuko gara gehienbat gure produktuarekin aurrera egiteko. Gainera, produktu hoiak egoera hobereanean iristeaz arduratuko gara, hau da, baldintza batzuekin kontratatuko dugu hornitzaileen enpresa. Baldintza horiek zuzen betetzea izango da elkarlanaren ardura eta betebeharra.

Marketing-aren arira, beste enpresa bat kontratatuko dugu kudeatzeko. Horretarako, bezeroengana hobeago iristeko, sare sozialetan kontuak irekitzea erabaki dugu. Adibidez Instagram-en, Twitter-en eta TikTok-en. Horrela, bertan bezeroentzat deskontuak egongo dira noizean behin, baita zozketak ere, pausu batzuk jarraituta. Hau da, gure kontua jarraitzeagatik eta bere "storietan" gure kontuaren eta zozketatzen dugun produktua publizitateagatik zozketan parte hartzen dute. Beraz, hori dena kudeatzen duen enpresa bat kontratauko dugu, horrela gure enpresa hazteko.

Online bidez bezeroek egindako eskaerak beraien etxeetara iristeko garraio enpresa bat kontratatuko dugu. Hau da, produktuak ahal den bezain laster iristen saiatuko gara garraio enpresaren bitartez. Enpresa hau, Espainia osoan zehar produktuak banatzeaz arduratuko da. Horrela, ahalik eta garaiz eta bezeroei esandako egunean iristea izango da helburua.



Azpikontrazio hauen helburua gure enpresa eta salduko ditugun produktuak ahalik eta egoera hobereanean bezeroei iristea izango da, hau da, beste enpresa batzuk kontratatzea onuragarria izango da bai guretzat, bai kontratatutako enpresarentzat eta bai bezeroentzat. Kalitate hobeagoarekin egindako produktuak izango baitira,

horrela gure enpresa handitu egingo da, eta horrekin batera bezeroei interes gehiago piztuko zaie gure produktuarekin.